

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua babespean, kirol elkarteentzako dirulaguntzei buruzko KONTROL MOZIO hau egiten dut, Zerbitzu Orokorren Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gure hirian hainbat kirol modalitatetako klub asko daude. Horietako askok, ahalegin handiak egin ondoren, Espainiako eta nazioarteko liga onenetan lehiatzea lortu dute, Donostiaren ikurra eta eta ordezkari izanik, gure balioak eta kultura transmititzen dituztela.

Egia esan, klub horietako askok sufritu egiten dute kategoria horietan irauteko, eta ez dute ikusten erakunde publikoek behar bezala saritzen edo babesten dituztenik. Bereziki, maila ekonomikoan.

KUPek 1.535.500 euroko aurrekontua du “dirulaguntzetarako”. Horietatik, 695.500 € (% 45) horrelako laguntzak jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzeko ahalegina egiten duten klubentzat dira (kategoriak, oinarrizko kirolaren sustapena, emakumeen kirola sustatzea, klubaren lizentzia kopurua, atalak, UDA, etab.).

Gainerako 840.000 euroak modu nominalean banatzen dira, “izendunak/apartekoak” kalifikazioa duten egoeretan. Kopuru osoaren % 55 da kopuru hori.

Horretaz galdetuta, zinegotzi ordezkariak erantzun du legeak aukera ematen duela “aparteko” ekarpenak jasotzeko. Gainera, zuzkidura horiek kontseiluan onartu zituzten.

Muturreko edo ezohiko kasuetarako ekarpen nominal horiek izaera puntual eta salbuespenezkoa dutela kontuan hartuta, gehiegizkoa da egiaztatzea gaur egun aurrekontu osoaren % 50 direla. Horrek zuzenean eragiten die baldintzak betetzen saiatzen diren klub horiei; izan ere, elkarre horiek, nazioan eta nazioartean gure ordezkari izaten jarraitzea bultzatzeaz gain, maila horietan lanean jarraitzea oztopatzen die.

Hori guztia dela eta aurkezten dugu honako hau

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzarak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio kirol klubentzako dirulaguntzen ehunekoak alda ditzala, % 60 “puntuazioak/baldintzak” atalerako izateko eta, aurrekontuaren % 40, “izenduna” edo “apartekoa”.
2. Donostiako Udaltzarak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio txosten zehatz bat aurkez dezala “izendun/apartekoa” nola eta zergatik banatzen diren azaltzeko, Donostiako kirol klub guztiei SALBUESPENEZKO baldintzak eta arrazoiak ezagutzeko aukera emango dien gardentasun ariketa batean.
3. Donostiako Udaltzarak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio klub “txiki” horiek gehiago sustatu eta ikusarazteko. Izan ere, elkarte horiek laguntza handia ematen dute Donostian kirolaren balioak sustatzen, modalitate guztietan.

Donostian, 2020ko maiatzaren 18an

Borja Corominas Fisas,
Alderdi Popularra udal taldearen bozeramailea.